



Usurbilgo Udala

## 2016KO MAIATZAREN 31N EGINDAKO OHIKO BILKURAKO AKTA

### BERTARATUAK

#### Alkate-Lehendakaria

Xabier Arregi Iparragirre

#### Zinegotziak

Alaitz Aizpurua Labaka  
Xuban Zubiria Elexpe  
Jone Urdampilleta Urdampilleta  
Iñaki Ugarte Agirre  
Irene Garcia Palacios  
Jose Mari Iribar Zapirain  
Josune Urkola Larrarte  
Mirari Azurmendi Sorazu  
Andoni Atxega San Sebastian  
Carlos Perez Fraisoli  
Fermin Orue-Echevarria Iturri

**Idazkaria:** Garazi Etxeberria San Miguel

**Kontu-hartzailea:** Karmele Lizaso Ubera

**Ezin-etorria adierazi du:** Miren Josune Estella Arranz-ek

Arratsaldeko 18:00etan batzarrari hasiera eman zaio.

Usurbilen, 2016ko maiatzaren 31n, arratsaldeko 18:00etan, Udaletxeko Pleno Aretoan, Usurbilgo Udaleko ohiko Udalbatza Plenoa egiteko goian adierazten direnak lehen deialdian bildu dira.

Bertaratuak bezala goian agertzen diren zinegotziak batzarkide direlarik, Xabier Arregi Iparragirre izan da Batzarburua.

### **1.- EKAINAREN 26AN IZANGO DIREN HAUTESKUNDE OROKORRETAKO MAHAIKIDEEN ZOZKETA.**

CONOCE aplikazio informatikoa erabiliz, 2016ko ekainaren 26an izango diren Hauteskunde Orokorretako mahaikideak hautatzeko zozketa egin da.



Usurbilgo Udala

## **2.- ALKATETZAKO DEKRETU HAUEN BERRI EMATEA: 2016KO APIRILAREN 18TIK MAIATZAREN 20RA (2016/0356-2016/0483).**

Alkatetzak 2016ko apirilaren 18tik maiatzaren 20ra bitartean (2016/0356– 2016/0483) egindako dekretuen berri eman zaie bertaratutakoei.

Zinegotziak jakinaren gainean geratu dira.

## **3.- 2017 URTERAKO HERRIKO JAI-EGUNAREN IZENDAPENA.**

Alkateak adierazi du legeak markatzen duela bi jai-egun izendatu behar direla, horietatik bat uztailaren 31a, San Inazio eguna, jada Gipuzkoa osorako izendatuta dagoena eta Usurbilerako proposatzen dena da ekainaren 30a jai-eguna izendatzea, uztailaren 2a igandea tokatzen delako.

Alaitz Aizpuruak esan du logikaz agian jai-eguna astelehena izan beharko lukeela, baina aurreikusten da herriko jaiak ostegunetik igandera izango direla, hori dela eta, egokiagoa ikusi dela esan du herriko jai-eguna ostirala izatea proposatzea.

Idazkariak argitu du Udalak edozein egun izendatu dezakeela herriko jai-egun, ez duela zertan izan behar Santixabel eguna ere.

Puntu hau gai-zerrendan sartzea berretsi ondoren, batzarkideek, alkateak egindako proposamena aho batez onartu dute, honela dio erabakiak:

“ID.02/2016-0278

Maiatzaren 13ko EHBOean maiatzaren 10eko 71/2016 dekretua argitaratu zen, zeinaren bidez Euskal Autonomia Erkidegoko langileen 2017. urteko jaiegunen egutegi ofiziala onartzen den.


Aipatu dekretuaren bigarren puntuan xedatzen da tokian tokiko jaietako bi egun ere jai egun izango direla.

Gipuzkoako Lan, Enplegu eta Gizarte Politiketako Lurralde Ordezkaritzatik jasotako oharrean udal honi jakinarazi zaio 2017rako San Inazio eguna, uztailaren 31a, Gipuzkoa osoko jai eguna izatea aurreikusita dagoela.

Hau guztia horrela, Udalbatza Osoak, aho batez, honako erabakia hartu du:

### **ERABAKIA**

**LEHENA:** 2017ko Santixabel eguna, uztailaren 2a, igandea izanik ekainaren 30a (ostirala) herriko jai-eguna izatea.



Usurbilgo Udala

**BIGARRENA:** Erabaki honen berri Gipuzkoako Lan, Enplegu eta Gizarte Politiketako Lurralde Ordezkaritzari ematea.”

Bozketa egin denean, honako emaitza izan da.

Aldeko botoak: Xabier Arregi Iparragirre, Alaitz Aizpurua Labaka, Xuban Zubiria Elexpe, Jone Urdampilleta Urdampilleta, Iñaki Ugarte Agirre, Irene Garcia Palacios, Jose Mari Iribar Zapirain, Josune Urkola Larrarte, Mirari Azurmendi Sorazu, Andoni Atxega San Sebastian, Carlos Perez Fraisoli eta Fermin Orue-Echevarria Iturri.

Beraz, erabakia aho batez hartua izan da.

#### **4.- ARTZABAL ERAIKINEKO GURE PAKEA JUBILATUEN TABERNAREN KUDEAKETARAKO ZERBITZU KONTRATUAREN ESLEIPENA.**

Alkateak adierazi du maiatzaren 10eko ezohiko plenoan eskatzaileen zerrenda ordenatu bat egin zela eta lehen tokian agertzen zen Igor Gorritiri 10 eguneko epea eman zitzaiola dokumentazioa aurkezteko. Agiri horiek aurkeztu zituen eta ondoren maiatzaren 27an egin zen Kontratazio Mahaian Igor Gorritiren izendapena onartu zela esan du. Erabaki hori dela dio pleno honetara ekartzen dena hemen berretsia izan dadin.

Jarraian, irizpenaren puntuak irakurri ditu.

Batzarkideek, Kontratazio Mahaiak egindako proposamena aztertu dute eta aho batez onartu dute, honela dio erabakiak:


“Espediente zkia: ID.05/2016-0024

Artzabal eraikinean kokaturiko Gure Pakea jubilatuen tabernaren kudeaketa kontratua iragarri zen Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta Kontratatzailearen Profilean, 2016ko otsailaren 2an.

Emandako epean honako eskaintza hauek aurkeztu ziren: Igor Gorriti eta Aroa Bengoetxea.

Lizitatzailen proposamenak baloratu ondoren, amaierako emaitzak hauek izan dira:

LIZITATZAILE A	BALIO TEKNIKOA (40 p)			HOBEKUNTZ AK (B)	KANO N	TITULAZI O	INBERTSI O	GUZTI RA
	Ustiape na	Auzora egokitu ta	Langile antolake ta					
Aroa	12,75	11	7,50	1,25	33,33	5	5	75,83



Usurbilgo Udala

Bengoetxea								
Igor Gorriti	15,15	10	7,50	0,50	40	5	5	83,15

Usurbilgo Udalbatza Plenoak, 2016ko maiatzaren 10ean egindako ezohiko bilkuran, besteak beste, honako erabaki hau hartu zuen:

**“LEHENA:** Aurkezturiko eskaintzak honako ordenaren arabera sailkatzea eta puntuaketa altuena atera duena IGOR GORRITI-rena dela zehaztea:

- 1.IGOR GORRITI: 83,15 puntu
2. AROA BENGOETXEA: 75,83 puntu

**BIGARRENA:** IGOR GORRITI-ri erabaki honen berri ematea eta errekerimendua egitea, jakinarazpen hau jaso eta hurrengo egunetik kontatzen hasita 10 egun balioduneko epean oinarri administratiboetako 23. klausulan zehazten diren agiriak aurkeztu ditzan:  
(...)”

Pertsonal eta Kontratazio Teknikariak 2016ko maiatzaren 24ko datuz esleipena egitearen aldeko txostena egin du.

Gaia 2016ko maiatzaren 27ko Kontratazio Mahaian eztabaidatu ondoren aho batez ONARTUA gelditu da, hurrengo bozkak eman direlarik:

- Aldeko botoak: Xabier Arregi, Garazi Etxeberria, Karmele Lizaso, Jone Urdanpilleta, Nerea Altxu.

Beraz, hau guztia kontutan harturik, Udalbatza osoak, aho batez, honako erabakia hartu du:

## ERABAKIA

**LEHENA:** Igor Gorriti Lizaso-ri esleitzea Artzabal eraikinean kokaturiko Gure Pakea jubilatuen tabernaren kudeaketa kontratua emateko kontratua, prozedura ireki bidez.

**BIGARRENA:** Erabakia Igor Gorriti Lizaso-ri jakinaraztea eta ekainaren 6an Udalera kontratua sinatzera etortzeko dei egitea.

**HIRUGARRENA:** Kontratuaren formalizazioa udaleko Kontratatzailearen Profilean eta Gipuzkoako Buletinean argitaratzea.

**LAUGARRENA:** Kontratuen Erregistrora eta Kontuen Auzitegira legez bidali beharreko informazioa bideratzea.

**BOSGARRENA:** Erabaki honen berri Igor Gorriti, Aroa Bengoetxea, Kontu-hartzaitza eta Ongizate sailari ematea.”



Usurbilgo Udala

Bozketa egin denean, honako emaitza izan da.

Aldeko botoak: Xabier Arregi Iparragirre, Alaitz Aizpurua Labaka, Xuban Zubiria Elexpe, Jone Urdampilleta Urdampilleta, Iñaki Ugarte Agirre, Irene Garcia Palacios, Jose Mari Iribar Zapirain, Josune Urkola Larrarte, Mirari Azurmendi Sorazu, Andoni Atxega San Sebastian, Carlos Perez Fraisoli eta Fermin Orue-Echevarria Iturri.

Beraz, erabakia aho batez hartua izan da.

## **5.- 2015EKO KONTU OROKORRAREN BEHIN BETIKO ONESPENA.**

Alkateak azaldu du gai honek legeak agintzen dituen pausoak eman dituela. Apirilaren 18an Kontuen Batzorde Berezian onartu zen, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean jendaurrean egon da hamabost egunez, epe horretan ez da erreklamaziorik aurkeztu, beraz, hona ekartzen den proposamena da, batetik, Udalaren 2015eko Kontu Orokorra behin betirako onartzea eta, bestetik, espedientea Herri Kontuen Euskal Epaitegira bidaltzea dagozkien azterketak egiteko.

Batzarkideek, Kontuen Batzorde Bereziaren irizpena kontutan hartuta, honako erabakia hartu du gehiengoz:

21/2003 Foru Arauak, abenduaren 19koa, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzkoak arautzen duen eran, Kontuen Batzorde Bereziak apirilaren 18an eman zuen 2015eko Kontu Orokorrari buruzko txostena (aldeko bozkak: Alaitz Aizpurua, Xabier Arregi, Jone Urdampilleta eta Fermin Orue-Echevarria; abstentzioa: Josune Urkola). Kontu Orokorra, aipatutako txostenarekin, jendaurrean azaldu da, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean 2015eko apirilaren 21ean argitaratua izan denetik hasita 15 egunetan. Epe honetan ez da erreklamaziorik aurkeztu.


Hau guztia dela eta, Korporazioaren Osoko Bilkuraren onespenerako jartzen da, onetsi ahal izan dadin, beti ere uztailaren 31a baino lehen.

Udalbatzarra, gehiengoz, honako erabakia hartu du:

### **ERABAKIA**

- 1.-Usurbilgo Udalaren 2015 ekitaldiko Kontu Orokorra behin betirako onartzea.
- 2.-Behin betiko izaeraz onartutako Kontu Orokorraren Espedientea Herri Kontuen Euskal Epaitegiari igortzea, dagozkien azterketak egiteko.”

Bozketa egin denean, honako emaitza izan da.



Usurbilgo Udala

Aldeko botoak: Xabier Arregi Iparragirre, Alaitz Aizpurua Labaka, Xuban Zubiria Elexpe, Jone Urdampilleta Urdampilleta, Iñaki Ugarte Agirre, Irene Garcia Palacios, Jose Mari Iribar Zapirain eta Fermin Orue-Echevarria Iturri.

Abstentzioa: Josune Urkola Larrarte, Mirari Azurmendi Sorazu, Andoni Atxega San Sebastian eta Carlos Perez Fraisoli.

Beraz, erabakia gehiengoz hartua izan da.

## **6.- 2016KO ZERGA ORDENANTZAREN ALDAKETAREN BEHIN BEHINGO ONESPENA.**

Alaitz Aizpuruak azalpenak eman ditu.

Urtariletik aurrera eragina izaten duten zergak irailean hasten direla lantzen eta normalean abenduan behin betirako onartuta izaten dituztela esan du. Baina zehaztu du badirela zenbait tasa, zerga edo prezio kurtsoarekin batera hasten direnak, hala nola, haur eskolako tasak, udajolaseko tasak eta kiroldegiko tasak. Haur eskolako eta udajolaseko tasetan ez dagoela aldaketarik esan du baina bai kiroldegiko tasetan eta aldaketa horiek onartzea proposatzen da.

Aldaketa hori onartu behar zenez, aprobetxatu nahi izan dutela dio urte hasierako onartu zen Eraikuntza, instalazio eta obrei buruzko zergetan argibide bat sartzeko, onartutako horren interpretazioak arazoren bat sortu duelako. Halaber, Zerbitzu publikoak eskaini eta jarduerak burutzeagatik tasetan hileta zerbitzuei dagozkien prezioetan ere aldaketak egitea proposatzen dela esan du.

Jarraian, irizpenean jasotzen den moduan aldaketa bakoitza zertan datzan azaldu du.

Batzarkideek, Ogasun Batzordearen irizpena aztertu dute eta honako erabakia hartu dute gehiengoz:

“Ogasun Batzordeak, 2016ko maiatzaren 23ko ez-ohiko bileran, gehiengoz, Alaitz Aizpurua, Xabier Arregi, Jone Urdampilleta (EH Bildu), eta Fermin Orue-Echevarriaren (PSE) aldeko botoekin, eta Josune Urkolaren (EAJ) abstentzioarekin egindako irizpena kontutan hartuta, Udalbatzarrak honako erabakia hartu du gehiengoz:

### **ERABAKIA**

**LEHENA.** - 2016ko Zerga-Ordenantzetan aldaketa hauek behin-behingoz onartzea:

#### **“4.- ERAIKUNTZA, INSTALAZIO ETA OBREI BURUZKO ZERGAREN ORDENANTZA FISKAL ARAUTZAILEA.”**

“VII. HOBARIAK

11. Artikulua.



Usurbilgo Udala

1-Uztailaren 5eko 11/1989 Foru Arauak, Gipuzkoako Toki Ogasunei buruzkoak, 9. artikuluan xedatutakoaren arabera, honako hobariak onartu ditu Usurbilgo Udalak:

a) %95ko hobaria, baldin eta eraikuntza, instalazio edo obretan energia aurreztea lortzen bada. Beren helburu bakarra hura izanik edota birgaitze obra haundiago baten parte badira, kontzeptu horren atal diren partidei aplikatuz. Existitzen diren eraikinen kasuan, araudiak ezarritako parametroak betetzea ezinezkoa denean ere aplikagarri izango da, baldin eta modu eraginkorren energia aurreztea lortzen bada. Eraikuntza, instalazio eta obrek honako helburu hauetakoren batekin bat etorri beharko dute:

\_Eraikinen ingurutzaileren energia eragingarritasuna lortzeko egiten diren lanak. Fatxadak eta estalkiak isolatzea (kanpoko arotz lanak barne).

\_Eraikuntza berrien nahiz osoko birgaitzeen kasuan, Eraginkortasun Energetikoari dagokionean A eta B mailako ziurtagiria lortzen duten eraikinei: Hobaria behin obra amaitu eta eraginkortasun energetikoaren A eta B maila ziurtatzen denean exekutatu da.

\_Eraikuntza berrien nahiz osoko birgaitzeen kasuan, Passivhaus edota Minergie estandarrak betetzea lortzen duten eskuhartzeetan. Hobaria behin obra amaitu eta eraikitakoak hala betetzen duela ziurtatzen den unean exekutatu da.

\_Instalazioak energetikoki eragingarriagoak bihurtzeko egindako lanak (berokuntza, hozketa, etxeko ur beroa, elektrizitatea).


\_Energia berriztagarriak edo alternatiboak instalatzea (eguzki energia edo fotoboltaikoa, eolikoa, biomasa, e.a.

b) %90ko hobaria, eraikuntza, instalazio edo obrek pertsona ezinduen irisgarritasun baldintzak errazten dituztenean (igogailuak, maldak, plataformak, etab.). Beren helburu bakarra hura izanik edota birgaitze obra haundiago baten parte badira, kontzeptu horren atal diren partidei aplikatuz. Existitzen diren eraikinen kasuan, araudiak ezarritako parametroak betetzea ezinezkoa denean ere aplikagarri izango da, baldin eta irisgarritasuna hobetzea lortzen bada.

c) %90ko hobaria, eraikuntzak, instalazioak edo obrak interes berezikoak edo udal onurakoak izendatuta daudenean zirkunstantzia kultural edo historiko-artistikoak izateagatik eta Udalak onartuta duen Hirigintza Plangintza Orokorreko Ondare Katalogatuaren zerrendan, 1go edo 2gn kategorian, agertzen direnean. Kasu hauetan hobaria zuzenean aplikatuko zaie; izan ere, Hirigintza Plangintza Udal Batzarrak bere garaian onartu zuen.

d) %50ko hobaria, eraikuntzak, instalazioak edo obrak interes berezikoak edo udal onurakoak izendatuta daudenean zirkunstantzia kultural edo historiko-artistikoak izateagatik eta aurreko puntuan aipatutako Ondare Katalogatuaren 1go eta 2gn kategorian ez daudenean. Udalak onartuta duen Hirigintza Plangintza Orokorreko Ondare Katalogatuaren zerrendan, 3gn kategorian, agertzen direnean hobaria zuzenean aplikatuko zaie; izan ere, Hirigintza Plangintza hau Udal Batzarrak bere garaian onartu zuen. Gainontzeko kasuetan, hau da, Ondare Katalogatuaren zerrendan agertzen ez direnean, izendapena Udal Batzarrak onartu beharko du, eta subjektu pasiboak eskatuta erabakiko da, batzarkideen gehiengo soilaren aldeko botoekin.

e) % 15eko hobaria, babes ofizialeko etxebizitzekin zer ikusia duten eraikuntza, instalazio edo obrak direnean, subjektu pasiboak aurrez eskaera bideratu beharko dutelarik.



Usurbilgo Udala

## **6.- ZERBITZU PUBLIKOAK ESKAINI ETA JARDUERAK BURUTZEAGATIKO TASAK ARAUTZEN DITUEN ORDENANTZA.**

### **E. HILETA ZERBITZUAK.**

		%20	%40	%60	%80	%90
	Gorpu 1	Gorpu 2	Gorpu 3	Gorpu 4	Gorpu 5	Gorpu 6
Ehorzketak lurrazpian edo bakarreko panteoian	334,00	601,20	801,60	935,20	1.002,00	1.035,40
Ehorzketak nitxoan	305,00	549,00	732,00	854,00	915,00	945,50
Ehorzketerrausten kolunbarioan	102,00	183,60	244,80	285,60	306,00	316,20
Lurrazpiko edo bakarreko panteoiko hobitik ateratzea	146,00	262,80	350,40	408,80	438,00	452,60
Nitxoko hobitik ateratzea	120,00	216,00	288,00	336,00	360,00	372,00
Kolunbarioko hobitik ateratzea	80,00	144,00	192,00	224,00	240,00	248,00

Panteoia oso bat hobitik ateratzea	450,00
Panteoien kontzesioa, bakoitza 50 urte	2.590,00
Errauts kolunbarioaren kontzesioa, bakoitzeko 50 urteko	870,00
Tanatorio zerbitzuaren erabilera eguneko	115,00

Oharra: Lurrazpiko edo bakarreko panteoiko hobitik atera edo sartzerakoan, apal bakoitza unitate bat izango da.

## **8.- ZERBITZUAK ESKAINI EDO UDAL JARDUERAK BURUTZEAGATIKO PREZIO PUBLIKOAK ARAUTZEN DITUEN ORDENANTZA.**

### **B. UDALEKO KIROL INSTALAZIOAK.**

#### A) OIARDO KIROLDEGIA


#### SARRERAK

19 urte edo gehiago	6,00 €
18 urte edo gutxiago	3,70 €
Dutxa	2,00 €

#### ABONOAK (I-XII)

Familiarra	240 €
19 urte edo gehiago	158 €
18 urtez edo gutxiago, pentsionista, jubilatuta edo 25 urtez beherako ikaslea	99 €





Usurbilgo Udala

- Abonua pertsonala da, eta behin ordainduta, baja emateak ez du suposatuko ordaindutakoa itzuliko denik. Abonoak urtero automatikoki luzatuko dira, abonatuak baja eskatzen ez duen bitartean. Bajak, abenduaren 20a aurretik eskatu beharko dira.

- Urtarriletik abendura bitarteko abonua (100 €-tik gorakoa) bi zatitan ordaindu ahal izango da, erdia eta erdia, beti ere, ordainketa helbideratzen bada. Lehenengo ordainketa urtarrilean burutuko da eta bigarrena uztailean.


- Ordainketak, txartela bidez edo Kiroldegiak horretarako dituen kontu korranteetan egin beharko dira. Ez da onartuko 10€tik gorako ordainketarik eskudirutan.

Oiaro kiroldegian abonua egiteak, Andoainen, Lasarte-Orian eta Urnietan errolatuak dauden pertsonen izan ezik, Buruntzaldeko udaletako (Andoain, Lasarte-Oria, Urnieta eta Usurbil) kirol instalazioak erabiltzeko eskubidea ematen du. Erabilpen honek berarekin dakar instalazio bakoitzaren erabilpen arauak bete beharra eta arau horiek hausten dituen erabiltzaileari dagokion zigorra aplikatzea. Ezarritako zigorrak Buruntzaldeko udaletan aplikatuko dira.

<b>EPEA</b>	<b>FAMILIARRA</b>	<b>19 urte edo gehiago</b>	<b>18 urte edo gutxiago, pentsionista, jub. eta 25 urtez beherako ikasleak</b>
urt. – abe., ots. - abe.	240,00 €	158,00 €	99,00 €
mar. - abe.	224,00 €	147,00 €	92,00 €
api. – abe.	204,00 €	134,00 €	84,00 €
mai. – abe.	184,00 €	121,00 €	76,00 €
eka. – abe.	164,00 €	108,00 €	68,00 €
urt. – eka., uzt.- abe.	156,00 €	102,00 €	64,00 €
ots. – eka., abu. – abe.	136,00 €	89,00 €	56,00 €
mar. – eka., ira. – abe.	116,00 €	76,00 €	48,00 €
api. – eka., urr. - abe.	96,00 €	63,00 €	40,00 €
mai. – eka., aza. - abe.	76,00 €	50,00 €	31,00 €
eka. – eka., abe. – abe. edo hilabete naturala	56,00 €	37,00 €	23,00 €

#### Erreserba eta zerbitzuak

Squash ( 60´)	5,20 €
10 saioko abonua	41,60 €
Sauna	3,70 €
10 saioko abonua	29,60 €
Pista kirolanitza (60´)	21,25 €
Argiarekin	25,55 €
Pista kirolanitza (60´) 1/3	8,20 €
Argiarekin	9,80 €
Pista kirolanitzean gomak jarri eta	300,00 €



Usurbilgo Udala

kentzea	
Kanpoko zelaia	15,85 €
Argiarekin	20,00 €
Igeritegia (kalea 60´)	8,70 €
Gimnasioa (60´)	6,75 €
Sala Tatamia (60´)	2,05 €
Giharketa gela (60´)	10,40 €
Giltza puskatzea, galtzea	5,20 €
Karneta puskatzea, galtzea	3,50 €
Txanoa	3,00 €


Tasa hauek instalazio bakoitza pentsatutako kirol ekintza egiteko ordu beteko alokairu tasa da. Alokatzeko, Oiardo kiroldegiarekin harremanetan jarri behar da.

Kirol instalazioa ekintza berezia burutzeko erabili nahi izanez gero (ez ohiko ekintza), Udalean eskaera egin beharko da (gutxienez 10 eguneko epearekin).

Tarifa hauek ordaintzeaz salbuetsita egongo dira Usurbilgoak diren irabazi asmorik gabeko taldeak eta entitateak eta interes publikokoak diren ekitaldiak antolatu nahi duen usurbildar norbanakoak. Beti ere antolatutako ekitaldiak Udalaren interesekoak diren irizpideekin bat badatoz.

#### Ikastaroak (hilabeteko)

Ikastaroa	Abonodunak	Abonu gabeak
Mantentze gimnastika, Zumba eta aerobik astean 2 egunez	15,00€	30,00€
Pilates, Jumping, ur-ludoteka 5-8 urte astean 2 egunez	31,20€	62,40€
Spinning, tonifikazioa, igeriketa eskola eta igeriketa hobekuntza astean 2 egunez	25,00€	50,00€
3.adinako gimnastika astean 2 egunez	6,80 €	13,60 €
Igeri hastapena 4 lanegunetan, hilabetekoa	62,45€	124,90€
Uretara moldatzea, astean 4 egunez, hilabetekoa 5-8 urte	75,00€	150,00€
Ur-ludoteka astean 2 egunez 3-4 urte	41,65€	83,30€
Haurtxoak eta uretara moldatzea 3-4 urte, astean 2 egunez	46,80€	93,60€
Yoga, astean behin (ordu eta erdi)	18,75€	37,50€



Usurbilgo Udala

--	--	--

Ikastaroen hilabeteko saio kopuruaren arabera tarifa proportzionala izango da.

Ikastaroetan izena emateak ordaintzea suposatzen du; beste inolako erreserbarik ez da onartuko. Izena emateak, ikasturte guztirako erreserba egitea derrigortzen du.

Ikastaroetan izena ematea pertsonala da eta baja emateak ez du esan nahi dirua itzuliko denik.

100 €tik gorako ikastaroak bi zatitan ordaindu ahal izango dira, bata izena emate momentuan kobratuko da (%60), eta bigarren zatia urtarrilean (%40), beti ere, ordainketa helbideratzen bada.

Ikastaroak dirauen bitartean kirol-instalazioetako abonuan baja ematen duten ikastaro kideek, abonodun ez direnen tarifari dagokion zati proportzionala ordainduko dute eta alderantziz.

## B) UDALAREN BESTE KIROL INSTALAZIOAK

### HARANE FUTBOL ZELAIA

Ondoren gehitzen den laukietan adierazten diren prezioak €/ orduko izango dira.

	Abonodunak	Abonu gabeak
Zelai osoa (60´)	48,00€	115,25
Argiarekin	60,25€	144,60€
Zelai erdia (60´)	26,45€	68,75€
Argiarekin	32,50€	84,40€

UDAL PILOTALEKUAK (60´)	13,30€
Argiarentzako fitxa	3,90€

100 erabilpen baino gehiagoko alokairuei %30eko beherapena aplikatuko zaie.

Tasa hauek instalazio bakoitza pentsatutako kirol ekintza egiteko ordu beteko alokairu tasa da. Alokatzeko, Oiardo kiroldegiarekin harremanetan jarri beharko da.

Kirol instalazioa ekintza berezia burutzeko erabili nahi izanez gero (ez ohiko ekintza), Udalean eskaera egin beharko da (gutxienez 10 eguneko epearekin).



Usurbilgo Udala

Tarifa hauek ordaintzeaz salbuetsita egongo dira Usurbilgoak diren irabazi asmorik gabeko taldeak eta entitateak eta interes publikokoak diren ekitaldiak antolatu nahi duen usurbildar norbanakoak. Beti ere antolatutako ekitaldiak Udalaren interesekoak diren irizpideekin bat badatoz.”

**BIGARRENA.**- Hartutako erabakia jendaurrean jartzea, bai udal iragarki taulan baita ere Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, hogeita hamar egunetan zehar interesatuek espedientea aztertu eta erreklamazioak aurkeztu ahal izateko.

**HIRUGARRENA.**- Jendaurreko erakusketako epealdia amaitu ondoren, Udal Korporazioak behar diren behin betiko erabakiak hartuko ditu, aurkeztu izan diren erreklamazioak ebatziz eta Ordenantzaren behin betiko idazketa, beraren indargabetzea edo eta, behin behineko akordioan aipatutako aldarazpenak onetsiz. Erreklamaziorik aurkezten ez deneko kasuan, ordurarte behin behinekoa zen erabakia behin betiko hartutzat ulertuko da.

**LAUGARRENA.**- Edonola ere, aurreko atalean aipatzen diren behin betiko akordioak, izaera hori eman zaien behin behinekoak barne direlarik, eta Ordenantzen edo beraren aldarazpenen testu bateratuak Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuak izan beharko dira, ez direlarik indarrean hasiko argitaratze hori burutua izan ez dadin artean.

Bozketa egin denean, honako emaitza izan da.

Aldeko botoak: Xabier Arregi Iparragirre, Alaitz Aizpurua Labaka, Xuban Zubiria Elexpe, Jone Urdampilleta Urdampilleta, Iñaki Ugarte Agirre, Irene Garcia Palacios, Jose Mari Iribar Zapirain eta Fermin Orue-Echevarria Iturri.

Abstentzioa: Josune Urkola Larrarte, Mirari Azurmendi Sorazu, Andoni Atxega San Sebastian eta Carlos Perez Fraisoli.

Beraz, erabakia gehiengoz hartua izan da.

## **7.- EAJ-PNV UDAL TALDEAK AURKEZTEN DUEN EUSKAL ESKOLA PUBLIKOAREN ALDEKO MOZIOA.**

Josune Urkolak mozioari buruzko azalpenak eman ditu.

Usurbilen garai batean eskola publikoa izan zela, baina momentu batean erantzun onik ez zitzaion eman eta goertzik ikastola dagoela herrian esan du.

Usurbilek duen biztanle kopurua kontutan hartuta, bi aukerak edukitzeko eskubidea baduela uste dute, gainera herriko bi auzotan, Zubietan eta Aginagan badaudela eskola txiki publikoak esan du.



Usurbilgo Udala

Udalbatza honi mozioak jasotzen dituen lau puntuak onartzea eskatzen diotela adierazi du.

Jarraian, aipatutako lau puntuak irakurri ditu.

Fermin Orue-Echevarriak hitza hartu du eta adierazi du bere postura gai honen aurrean ezaguna dela. Mozio bezala ez baina aurrekontuen inguruko eztabaidetan mozio honetan eskatzen den gauza bera eskatu zuela esan du, hau da, eskola publikoaren aldeko lehenengo pausoak ematea eta lurzoru bat bilatzen hastea, lortu ondoren Jaurlaritzara joan eta eraikina egitea eskatzeko. Beraz, mozioarekin guztiz ados dagoela esan du.

Alkateak adierazi du Antolakuntza Batzordean hitz egindakoagatik beraien postura garbi azaldu zutela.

Behin eta berriz esan duten gauza bat berretsiko duela dio, EH Bildu udal taldea sistema publikoaren alde dagoela, euskal eskola publikoaren alde daudela. Beste gauza bat dela dio nola egituratzen den sistema hori eta konkretuki nola egituratzen den Usurbilen.

Hori dela eta, aurreko legealdian Usurbilen parte-hartze prozesu bat abian jarri zela esan du non hausnarketa bat egin zen ikusteko Usurbilek nolako eskola eduki behar zuen, eskola zentzurik zabalenean.

Prozesu horretan dokumentu bat adostu zela dio, "Usurbilgo herri hezkuntza proiektu bateratua". Dokumentu hau dela dio beraien erreferentzia nagusia, eta bertan aipatzen da, besteak beste, nolako izaera izan beharko lukeen Usurbilgo eskolak eta nolako baloreen gainean eraiki beharko litzatekeen. Eskola horrek erabat unibertsala izan beharko lukeela esaten da, hau da, edonorentzat irekia, edonor joateko modukoa, integratzailea, etab. Gaur egungo eskaintzari ikusten zitzaion arazoa zen, batez ere eta konkretuki, behin adin batetik aurrera dagoen Udarregiren eskaintza ez dela doakoa. Hori familia askorentzat arazoa da eta uste dute horri irtenbide bat aurkitu behar zaiola.

Gaineratu du Udarregi Usurbilgo herritik sortu zela, herri honek Udarregiren alde lan asko egin duela, nolabait herriko ikastetxe bat dela. Hori horrela, beraiak gehiago ikusten dutela dio Udarregiren birmoldaketa edo eboluzio bat egitea doakotasunaren bidean eta ez hainbeste beste eskola paralelo bat sortzea, zeren horrek normalean egiten duena baita soziologikoki herria bitan banatu eta, bestetik, beste eskola bat egitea oso garestia izango litzatekeela gaineratu du.

Beraz, beraien proposamena litzateke Udarregiren doakotasunaren alde egitea eta Udarregi bilakaera bat izatea herriko beharrei eta denei erantzun ahal izateko.

Gaineratu du ez dituztela ahaztu behar Zubieta eta Aginagako eskola txikiak, kontutan hartuta eskaintzaren barruan daudela eta zaindu eta indartu egin behar dituztela.



Usurbilgo Udala

Josune Urkolak adierazi du mozioan garbi jartzen dutela eskola publiko bat nahi dutela eskusiboki Eusko Jaurlaritzak kudeatzen duena. Alkateak aipatu duen hezkuntza prozesu horretan bera ere parte izan zela esan du eta dokumentu bat adostu zela bai baina galdetzen duena da ze ibilbide duen horrek. Alkateak esan duen bezala Udarregi doakoa izatea ideala izango litzatekeela dio, baina gaur egun hori ezinezkoa dela esan du, zeren bakoitzak bere bidea, bere modeloa darama. Herritarrek aukeratzeko eskubidea izan behar dutela uste dute.

Alkateak adierazi du aurrekoan Antolakuntza Batzordean ere esan zutela Gasteizko Parlamentuan eta igandean izan zen Ibilaldian interbentzioetan gaia atera zela. Hezkuntza lege berri bat eztabaidatzen ari omen dira hezkuntza eragile guztiak eta bertan dagoen gaietako bat finantziarioarena dela esan du. Sektore baten aldetik behintzat eskaera bat badagoela dio, itunpeko eskolak nola finantzatu behar diren eztabaida mahai gainean jarri behar dela. Ez dakiela dio horrek ze ibilbide izango duen baina ikusten duena da oso beharrezkoa dela herri honetan 1993an egin zen publikazio prozesu horren hurrengo fase bat martxan jartzea. Fase hau hezkuntza lege honek jaso beharko luke eta ikusi beharko dela dio nola egin ikastolek egin duten urteetako ibilbidea doakotasunerako pausoa emateko. Fase hori bezain zaila edo zailagoa ikusten duela dio Usurbilen beste eskola bat egitea. Beraien nahia edo ideala planteatzen hasita askoz egokiagoa dela iruditzen zaie Usurbilen herri eskola doako bat egitea, bat, zabala, anitza, era askotako eta izaera askotako jendea bere gain hartzen dituen.

Fermin Orue-Echevarriak adierazi du berak ere irakurri duela nola Eusko Jaurlaritzan ari diren hezkuntza lege horrekin eta ez dakiela dio nola bukatuko den gai hori, baina ez duela uste dio gaur egun ezagutzen duten euskal eskola publikoa galduko denik.

Udarregi doan izateari buruz adierazi du aurreragoko pauso bat izango litzatekeela, baina ez dela hori eskatzen dena eta bera ados dago mozioan esaten den moduan, Eusko Jaurlaritzako sarean dagoen eskola bat edukitzea.

Herrian bi eskola izateari buruz adierazi du 6.200 biztanleko herri batean posible ikusten duela.

Alaitz Aizpuruak adierazi du Gipuzkoan bost herri direla ikastola bakarrik duten herriak, tartean Usurbil, eta noski posible dela bi ereduak edukitzea edo eskola publikoa edukitzea ikastola bakarrik edukitzea baino. Gertatzen dela dio historikoki eman diren gauzengatik edo herri honek izan duen ibilbideagatik bost herri horien artean dagoela Usurbil.

93an publikazioa eman zenean lege bat markatu zen eta aukera bakarra zen sare publikoak markatzen zituen baldintzetan pasatzea zure ibilbideari nolabait uko eginez, edo zure ibilbideari jarraituz kontzertatua, pribatua geratzea.



Usurbilgo Udala

93tik hona ibilbide bat izan dute herri honetan eta Euskal Herrian eskolak, ikastolak, eskola publikoak eta gaur egungo errealitatea ez dela bat bestea ukatzen duena, baizik eta eskola sare bat daukagula adierazi du bakoitza bere ibilbidearekin, eta lege berri honi eskatzen diotena da bi errealitate horietan oinarritutako lege berri bat, ez inor desagerraraziz baizik eta kontrakoa, dauden sistema desberdinak barnebiltzen dituen lege bat izatea.

Bestalde, eskola bakarra izateak bere alde onak ere badituela adierazi du, zeren bat izate horrek ematen duen integrazioa eta aukera berdintasuna nabarmentzekoa dela esan du.

Batzarkideek, EAJ-PNV udal taldeak aurkeztutako Euskal Eskola Publikoaren aldeko mozioa aztertu dute eta gehiengoz erabaki dute ez onartzea.

Bozketa egin denean, honako emaitza izan da:

Aldeko botoak: Josune Urkola Larrarte, Mirari Azurmendi Sorazu, Andoni Atxega San Sebastian, Carlos Perez Fraisoli eta Fermin Orue-Echevarria Iturri.

Aurkako botoak: Xabier Arregi Iparragirre, Alaitz Aizpurua Labaka, Xuban Zubiria Elexpe, Jone Urdampilleta Urdampilleta, Iñaki Ugarte Agirre, Irene Garcia Palacios eta Jose Mari Iribar Zapirain.

Beraz, mozioa ez da onartua izan gehiengoz.

## **8.- EH BILDU UDAL TALDEAK HERRI-HEZKUNTZA PROIEKTUAREN AURREAN AURKEZTEN DUEN MOZIOA.**

Batzarkideek, aho batez, puntu hau gai-zerrendan sartzea berretsi dute.


Alkateak adierazi du ez duela uste ezer berririk esateko dagoenik, aurreko puntuan azaldu baitituzte bakoitzaren posturak.

Jarraian, mozioaren puntuak irakurri ditu.

Josune Urkolak esan du aurreko puntuan azaldutako guztia kontutan hartuta, kontrako botoa emango dutela.

Fermin Orue-Echevarriak ere gauza bera adierazi du.

Batzarkideek, EH Bilduk udal taldeak aurkeztutako mozioa aztertu dute eta gehiengoz onartu dute, honela dio testuak:



Usurbilgo Udala

“Usurbilgo herri-hezkuntza proiektu bateratua” izeneko hausnarketa prozesu bat eramán zen aurrera pasa den legegintzaldian. Parte-hartze prozesu zabal eta plural horretan Usurbilgo hezkuntzaren oinarriak eta baloreak adostu, eta aurrera begirako lan-ildoak zehaztu ziren. Bukaerako manifestu adostuan, herri-hezkuntza proiektu bateratua honela definitzen zen: “guztientzat artikulatua eta guztien eskura egongo dena, integratzailea eta ez-baztertzalea, berdintasunean oinarritua eta inklusiboa”. Horrela dago jasoa 2013ko otsailan adostu eta kaleratutako dokumentuan.

EHBilduren udaleko gobernu-taldeak bere egiten du prozesu horretan adostutakoa. Hortaz, herri-hezkuntza egituratzeari begira, bertan hitzartutakoaren arabera jokatzeko konpromisoa du, hezkuntza eragileekin eta herritarrekin batera.

Hain zuzen ere, herriko hezkuntza formaleko eragileei dagokienez, esan behar da bai Aginagako eta Zubietako eskola txikiek bai Udarreki ikastolak, planteamendu horrekin bat eginda dihardutela, eta gorestekoa dela beren inplikazioa eta lana. Helburua da herri-egitasmo zabal horretan elkarlanaren bidetik sakontzea, “pertsonak beren osotasunean orekatuta garatuz, eta ikasleen autonomia eta ekintzaitasuna bultzatuz”, herri-hezkuntza proiektu bateratuan adierazten den bezala.

2015eko Kilometroak jaiak bide horretan sakondu zuen, eta Udarreki eredu gisara aurkeztu zuen jarduera inklusibo, parekide eta jasangarrietan. Eta hori guztia auzolanean landu zen, herritarren inplikazio izugarritz.

Esandakoen arabera, EHBilduren gobernu-taldeari ez zaio egokia iruditzen beste ikastetxe bat sortzea, batetik, sozialki segregatzailea litzatekeelako, eta, bestetik, ekonomikoki oso garestia. Inguruko herrietan ikusten ari gara joera bateratzea dela, eta ez banatzea.

Gainera, Euskal Autonomia Erkidegoan, Jaurlearitzako Hezkuntza Saila eta hezkuntza eragileak Hezkuntza Lege berri baten aurre-lanketa egiten ari dira. Dagoeneko, eragile guztien iritziak eta proposamenak mahai gainean daude, eta Jaurlearitzak iragarri du berehalakoan ekingo diola lege berriaren lanketari. Eztabaidatzen ari diren gaien artean, bereziki nabarmentzekoa da Itunpeko ikastetxeen finantzaketa.


Usurbilgo EHBilduren udaleko taldeak uste du legeak oinarria finkatu behar duela euskal hezkuntza-eredu propio bat garatzeko, non ikastetxe publikoen eta itunpekoen sare koordinatu bat eratuko den, hezkuntzaren kalitatea eta unibertsaltasuna bermatuz.

Hori horrela, Udalbarrak, gehiengoz, honako mozioa onartu du:

## MOZIOA

1) Udalak berresten du “Usurbilgo herri-hezkuntza proiektu bateratua” dokumentuan adierazitakoa, eta herri-hezkuntzaren garapena balore eta oinarri horien gainean egiteko konpromisoari tinko eusten dio.





Usurbilgo Udala

- 2) Hezkuntza eskubide unibertsala da eta, beraz, herritar guztiek dute kalitatezko hezkuntza jasotzeko eskubidea diskriminaziorik gabe.
- 3) Jaurlaritzari eskatzen diogu Hezkuntza Lege berria garatu dezala lehenbailehen. Lege horretan euskal hezkuntza-eredu propio baten oinarriak finkatu behar dira, ikastetxe publikoen eta itunpekoen sare koordinatu bat eratuz.
- 4) Hezkuntza Lege berriak aukera ireki behar luke herrian dagoeneko dauden ikastetxeen doakotasuna bideragarri egiteko. Usurbilgo udalak konpromisoa hartzen du bide horretan lan egiteko.”

Bozketa egin denean, honako emaitza izan da:

Aldeko botoak: Xabier Arregi Iparragirre, Alaitz Aizpurua Labaka, Xuban Zubiria Elexpe, Jone Urdampilleta Urdampilleta, Iñaki Ugarte Agirre, Irene Garcia Palacios eta Jose Mari Iribar Zapirain.

Aurkako botoak: Josune Urkola Larrarte, Mirari Azurmendi Sorazu, Andoni Atxega San Sebastian, Carlos Perez Fraisoli eta Fermin Orue-Echevarria Iturri.

Beraz, mozioa gehiengoz onartua izan da.

Gai-zerrendatik kanpo:


## **RIVAS VACIAMADRID HERRITIK JASOTAKO IDATZIARI ATXIKIMENDUA ADIERAZTEA.**

Alkateak adierazi du gai-zerrendatik kanpo puntu berri bat sartu nahi dutela eta horretarako gai-zerrendan sartzea berretsi beharko dela.

Gaia kokatze aldera esan du aurreko astean bisitan izan zutela Clara, Madrilgo Rivas herriko biztanle bat, eta honek bere bizipenak eta hango errealitatea kontatu ziela, besteak beste, ekainaren 11n Madrilen manifestazio bat egingo dutela. Hemen aurkezten dena manifestazio horretarako manifestua da eta Clarak eskatu omen zien Usurbilgo Udalak manifestu horri atxikimendua adieraztea.

Fermin Orue-Echevarriak adierazi du ez dagoela aurka baina denbora gehiago behar duela gaia aztertzeko.

Josune Urkolak ere adierazi du gaia tratatzearen alde daudela baina denbora oso justua izan dutela aztertzeko.



Usurbilgo Udala

Alkateak adierazi du manifestu hau Antolakuntza batzordean tratatzeko edo lehenago banatzeko aukerarik ez dela izan. Era berean, ekainaren 11n izango den manifestazioa baino lehen eman beharreko atxikimendua denez, pleno honetan tratatu beharrekoa dela ikusi dutela gaineratu du.

Nahi bada, 10 minutuko etenaldia egin dezaketela esan du testua lasai irakurri ahal izateko.

Carlos Pérez-ek adierazi du idatzi hau dutela eskuartean baina beste ikuspuntua falta dela, alde bakarrekoa dela, beste aldearen iritzia falta zaiela kontrastatu ahal izateko.

Alkateak adierazi du mozio edo manifestu bat aurkezten denean beti ematen duela sinadura bat, nahiz eta noski beti aurkitu daitekeen beste iritzi edo ikuspegi bat.

[10 minutuko geldialdia egin da]

Etenaldiaren ondoren, batzarkideek, aho batez, puntu hau gai-zerrendan sartzea berretsi dute.


Jarraian, alkateak manifestuaren azken zatia irakurri du.

Fermin Orue-Echevarriak esan du informazio gehiago edukitzea gustatuko litzaiokeela, nahiz eta bertan esaten diren gauza batzuekin ados egon. Rivaseko kideekin ere hitz egin nahiko lukeela esan du. Hori dela eta, abstenitu egingo dela esan du.

Alkateak adierazi du Clararekin eduki zuten elkarrizketak merezi izan zuela, oso aberasgarria eta interesgarria izan zela. Hango erraustegia egin aurreko borrokaz eta ondorenean berari osasunean eragin zizkion kalteez aritu zela azaldu du. Inguru hartan dezente mugitzen ari direla adierazi du ikusten dutelako zer nolako kaltea eragin dien hango erraustegiak eta ez dutelako nahi beste inork beraiek jasaten ari diren hori jasatea.

Beste norbaiten testigantza interesgarria izan daitekeela uste badute, besteen iritziak entzuteko eskuzabalik daudela aditzera eman du.

Josune Urkolak galdetu du manifestu honetan ez dela erraustegiaz bakarrik hitz egiten, ezta?



Usurbilgo Udala

Alkateak erantzun dio ez dela erraustegiaz bakarrik hitz egiten. Hango eta hemengo errealitatea desberdinak direla esan du. Halaber, adierazi du horrelako konplexuetan erraustegia ez dela izaten azpiegitura bakarra, eta Zubietan ere ez dela izango, baldin eta egiten badute. Bere ustez azkenean ez dutela egingo gaineratu du.

Alaitz Aizpuruak gaineratu du bisita honetan azpimarratu dena izan dela erraustegia osasunarentzako kaltegarria dela eta hori dela esan du gehien batzen dituen puntua.

Nabarmentzekoa dela dio 36 kidek tartekatu duten denuntzia tramitera onartua izan dela.

Batzarkideek, gehiengoz, honako manifestuarekin bat egin dute. Honela dio testuak:


“NI RIVAS, NI EL SURESTE MADRILEÑO, SON VERTEDEROS...  
POR UN RIVAS LIMPIO Y SALUDABLE

#### CONVOCATORIA DE MANIFESTACIÓN – RIVAS 11 DE JUNIO

Rivas Vaciamadrid no es un vertedero, pero hay actividades dañinas que nos llevan hacia ello. En los años 50 y 60 fue literalmente un vertedero ilegal de la ciudad de Madrid, para dejar de serlo durante poco tiempo, porque a continuación se puso en marcha el vertedero de Valdemingómez, en el límite de Rivas Vaciamadrid. Este luego se amplió a incineradora y otros ingenio peligrosos. En la actualidad estamos siendo rodeados por un nin número de vertidos y quemas de residuos ilegales.

La lucha ciudadana ha sido constante. Hemos luchado años contra la incineradora. Hace tres años 10.000 vecinas firmaron pidiendo al fiscal General del Estado apoyo para controlarla, pero éste se desentendió. El verano pasado, el incendio del vertedero ilegal en la zona de Valdemingómez, próxima a la Cañada y frente al barrio de Covibar y la urbanización Pablo Iglesias provocó un verdadero levantamiento ciudadano. En noviembre pasado, 36 afectados y familiares de fallecidos por cáncer, que pueden estar afectados por vivir en las proximidades de la incineradora, presentaron una denuncia penal contra los responsables del control de la misma, que se ha admitido a trámite. Más de 1.000 familias han participado durante los meses de octubre y noviembre de 2015 y enero de 2016 en un estudio sobre cómo les afectó el incendio del vertedero ilegal y las continuas quemas y vertidos del Barrio de La Luna.

La zona Este de Madrid también ese está convirtiendo en un vertedero: La cementera de Morata de Tajuña, que incinera residuos, el depósito de Residuos industriales y peligrosos de San Fernando de Henares, la planta de lodos de Loeches o las depuradoras de aguas residuales de Torres de la Alameda, Velilla de San Antonio y San Fernando de Henares. Por eso, se está llevando a cabo una lucha constante contra la cementera de Morata, el macrovertedero de Loeches y los olores de Valdemingómez, en el Ensanche de Vallecas.



Usurbilgo Udala

Las acciones de las diferentes administraciones no bastan. Algunas de sus acciones son posiblemente ilegales, como las de la Comunidad de Madrid en el control de la incineradora. Otras son claramente insuficientes, como la Comunidad y los ayuntamientos de Madrid y de Rivas Vaciamadrid, en los casos de los vertidos ilegales e incendios.

Sólo una movilización amplia, que pretendemos iniciar en Rivas el 11 de junio y continuar de forma más amplia a nivel comarcal y regional, hará que esto cambie. Por supuesto, junto a las actividades que ya se están realizando, como denuncias, participación ciudadana en el control de los vertidos, búsqueda de alternativas e iniciativas institucionales...

**LOS ACUERDOS DE QUIENES OS CONVOCAMOS A ESTA MOVILIZACIÓN SON:**

Queremos acabar con los vertidos ilegales y la extinción de los incendios y el saneamiento de esos vertederos. Para ello, es necesaria una actuación policial eficaz y planes de control y estudio del estado de las zonas afectadas, así como un plan para su saneamiento.

Queremos que se cierre la incineradora de Valdemingómez. Estamos convencidos de que supone riesgos para la salud de las poblaciones próximas, en especial porque muchas de las emisiones al aire son bioacumulativas y persistentes y ¡20 años son demasiados! Además, hay indicios serios de que se están incumpliendo gravemente las leyes de control de la incineradora. Exigimos, por ello, al Ayuntamiento de Madrid, un plan de cierre de la Incineradora que incluya un nuevo modelo de tratamiento de residuos que elimine la incineración y reduzca al mínimo el vertido.

Por ello, os convocamos a una Manifestación el sábado 11 de junio, a las 12H, en la Av. Covibar (escuela Platero), Av. Miguel Hernández, rotonda Rivas Centro, Plaza de la constitución.

Convocatoria de las entidades de Rivas y regionales, sociales, ecologistas, vecinales, ampas y políticas, siguientes:

Rivas Contaminación Zero. Rivas Aire limpio. Jubiqué. AV Ensanche de Vallecas. CAES. Garbancita Agroecología. Ampa Instituto Las Lagunas. Plataforma Aire Limpio-Residuos Cero. Rivas Puede. PSOE. CUP Somo Rivas (IU + Somos Rivas + Equo). Podemos Rivas. Anticapitalistas Rivas-Sureste de Madrid. ...”

Bozketa egin denean, honako emaitza izan da:

Aldeko botoak: Xabier Arregi Iparragirre, Alaitz Aizpurua Labaka, Xuban Zubiria Elexpe, Jone Urdampilleta Urdampilleta, Iñaki Ugarte Agirre, Irene Garcia Palacios eta Jose Mari Iribar Zapirain.

Abstentzioa: Josune Urkola Larrarte, Mirari Azurmendi Sorazu, Andoni Atxega San Sebastian, Carlos Perez Fraisoli eta Fermin Orue-Echevarria Iturri.



Usurbilgo Udala

Beraz, manifestua gehiengoz onartua izan da.

### **9.- GALDERA-ESKAERAK.**

Ez da galdera edo eskaerarik egin.

Alkateak adierazi du zinegotzien argazkia udalaren webgunean dagoela.

**Alkateak batzaraldia bukatutzat eman du arratsaldeko 19:07etan eta bilera agiri hau jaso da, alkateak izenpetuz eta nik, idazkariak, ziurtatuz.**